

## Auzoa



Orain Gontzal etxean dago. Seiak dira. Patinetea hartu du eta kalera doa.

—Ama, parkera noa jolastera! —esaten dio bere amari, baina amak esaten dio:

—Gero joango zara. Lehenago, joan arrandegira eta erosi arraina.

Bidean, Gorka eta Izaskun daude eta galdetzen diote:

—E! Nora zoaz hain arin?

—Arrandegira noa, arraina eroatera

—erantzuten die Gontzalek.

—Etorri gurekin! —esaten dio Gorkak.

—Ez, orain ez. Gero joango naiz.

Gontzal arrandegira heldu da eta dendariari esaten dio:

—Emaidazu arrain hori, mesedez.

Dendariak arraina hartu eta eman dio:

—Hau arrain freskoa da. Tori!

Baina arrandegian ez daude bakarrik. Arrandegian katu bat dago, eta katuari ere arraina gustatzen zaio.

—Umm! Zein arrain goxoa! —pentsatu du katuak.

Gontzal parkera doa azkar. Arraina lurrean utzi du eta jolastera doa lagunekin. Baina, bapatean, katu etorri da, arraina hartu du eta badoa jatera.

—Kontuz! —esaten du Izaskunek.

—Katu madarikatua! —oihukatzen du Gontzalek.

Katuak arraina jan du eta hezurak bakarrik utzi ditu. Gontzal oso triste dago eta etxera doa.



—Ama hemen dago arraina!

—Ene! Zer da hau?

—Arraina, baina oso argala.

## AUZOA

### **Eman erantzuna galdera hauei:**

1.- Zertara joan nahi du Gontzalek parkera?

.....

2.- Noiz joango da parkera?

.....

3.- Nora joan behar du Gontzalek?

.....

4.- Zer erosi behar du arrandegian?

.....

5.- Non daude Izaskun eta Gorka?

.....

6.- Nolakoa da arraina?

.....

7.- Zein animalia dago arrandegian?

.....

8.- Norekin doa jolastera Gonzal?

.....

9.- Zer egin du katuak?

.....

10.-Nola dago Gontzal orain?

.....

## Auzoa (Hiztegia)

Arrandegia	.....	Arraina	.....
Okindegia	.....	Gozokiak	.....
Harategia	.....	Esnea	.....
Janaridenda	.....	Itsaskiak	.....
Zapatadenda	.....	Arraultzeak	.....
Liburudenda	.....	Oilaskoa	.....
Jantzidenda	.....	Haragia	.....
Botika	.....	Putzua	.....
Azoka	.....	Habia	.....
Postetxea	.....	Zuloa	.....
Okina	.....	Basoa	.....
Dendaria	.....	Geltokia	.....
Harakina	.....	Hiria	.....
Zapataria	.....	Herria	.....
Botikaria	.....	Hiriburua	.....
postaria	.....	Interesgarria	.....
Ogia	.....	.....	.....